

# Abarrak


GORKA BEREZIARTUA

## Ergelak elefante ehizan

*Shooting an elephant.* George Orwell, 1936.

MYANMAR, odol gaiztoko elefante bat herritarren kontra oldartu da eta poliziari –polizia ingelesa, hots, kolonoa– deitu diote riflea hartu eta tira eta tunba, animalia garbitu dezan. Iritsi da lekura pony baten gainean, Winchester bat eskuetan, baina kontatzen dizkioten gauzak nahasiak dira eta han elefanterik ez dabilela pentsatzen hasita, ospa egitea pasako zaio burutik.

Gero gizon baten gorpua ikusiko du, animaliak zanpa-zanpa egina, eta lan zikina ezingo duela saihestu buruan harturik, elefanteentzako rifle bat eskatuko du; hor doa, ehunka herritar atzetik dituela, piztiarenak egitera. Berak ez du elefantea hil nahi, baina bertako biztanleen hantsa sentitzen du lepoan, tiro



egin behar duela esanez bezala. Berunez beteko du azkenik tronpadun zorroaren gorputza, nahiz eta hil, ez duen hilko, baizik eta agonia mingarrian utziko.

George Orwellek inperialismo britainiarraren metafora egin nahi izan zuen *Shooting an elephant* saio laburrean; erakutsi nahi zuen, inperialismoak biak suntsitzen dituela, konkistatzailea eta konkistatua. Kolonizatzaileak, Orwellen aburuz, “bere bizitza eman behar du ‘natiboak’ harritu nahian, eta beraz, krisi bakoitzean, ‘natiboek’ berarengandik espero dutena egin behar du”.

Poliziak saioaren amaieran elefantea hil izanaren zergatiak azaltzen ditu: “Askotan galdetu diot nire buruari ea beste inork ulertu ote zuen, egin nuena egin nuela, ergelaren pare ez gertatzeko”. Bistan da, garaiak asko aldatu dira, eta orain elefanteak tirokatzeagatik gertatzen dira kolonoak ergelen antzera. Edo elefante ehizan aldaka puskatzeagatik zen?



**EGIZUHARPIDETZA**  
**EGIOZUHARPIDETZA**

Hego Euskal Herrian 138 € / Ipar Euskal Herrian 168 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefonoa

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

943 37 15 45 · harpidetza@argia.com

Jaso lekuan  
kobratu  
SEILORIK EZ

**argia**  
1-FD POSTA KUTXA  
20160 LASARTE-ORIA  
(GIPUZKOA)

TOLESTU

TOLESTU

ZELOPARRA  
HEMEN HAU

ERANTZUN KOMERTZIALA  
Baimen zkoa. 17352  
(B.O.C. 22/99-06-02koa)